

## Morkaiko kultur elkarteak kantu afaria antolatu du, datorren ostiralerako

■ Maider, Arantxa eta Ainhoa Ansa kantariak han izatekoak dira ■ Kantu zaharrak abestuko dituzte ■ Sarrerak salgai 2.000 ptan Garin tabernan.



Maider Ansa Hernanin Kantu txapelketa irabazi zuenean, trofeoa eta txapela eskuetan dituela.

MORKAIKO kultur elkarteak Hernanin gutxi zabalduko festa mota antolatu du: kantu afaria.

Morkaiko elkarteak Santa Barbarako jaia antolatzea du eginkizun nagusia eta San Inazio aurre honetan urtero egiten du festaren bat. Orain artean bertso afariak antolatu izan ditu, Tapia eta Leturiarekin dantza saioa ere bai, azkenean suspenditu egin behar izan bazen ere. Orain, kantu zaletasu-

na bultzatu nahi eta kantu afaria egingo dute.

### ARANON, LEHEN

Kantu afaria antolatzeko idea Aranotik hartu du Morkaikok. Korrika dela-eta, Aranon kantu afaria egin zen eta hura nola atera zen gustatuta Hernanin ere egitea pentsatu dute.

### FOTOKOPIAK BANATUTA

Kantu afaria Ansa aizpek zuzenduko dute. Arantxa eta

Ainhoarekin batera, Maiderrek abestuko du. Denera, 30 kantu inguru izango dira; batzuk zaharrak eta besteak berrixeagoak, baina, denak ere kantu ezagunak. Afalondoren, fotokopiak banatu eta denen artean kantatuko dituzte.

Aranon, Andres Mitxelaren bertsoak sartu zituzten errepertorioan eta Hernanin Txiritaren bertso sortaren bat sartzekoa dute. Afaria Santa Barbara elkarteke terrazan da.

## ■ BOLA

### Azkenetako tiraldia gaur, Benta Berriko bolatokian

■ Bolatokia bota eta frontoi ondoan berria egitekoa dute ■ Goizean bakarrik tirako da.



Benta Berrin Bolako Lehendakari saria jokatzen.

GOIZEKO 09:30ak aldera hasita eguerdi arte bola tirako da gaur Benta Berriko bolatokian. Bolatoki horretan tiratzen den azkenetako izan liteke bota eta berria egitekoa dute-eta. Itxura denez, bide ondolik kendu eta frontoi ondora eramatekoa dute.

Benta Berriko bolatokia orain dela 20 urte inguru egin da eta bolako txapelketa garrantzitsuak ere jokatu dira hor. Aurten bertan, Lehendakari Sariko bi tiraldietako bat jokatu da eta urte batzuk

atzerago Euskal Herriko Txapelketa.

### SONGINTXULOKOA, AGUR

Sorgintxuloko bolatokia, berri, historiara pasa da. Bota eta etxebizitzak egiten ari dira orain. Azkenengoz Hernaniko txapelketan tira zen hor eta Migel Arrozpide auzotarrak irabazi zuen 33 brila jota. "Ni rekuerto horrekin geldituko naiz" esan dio Kronikari Sorgintxuloko bolari ezagunak. □

## ■ ARRAUNA

### Hernani-Ubis Pontejoseko estropadan, gaur

■ Arratsaldeko seietan hasita jokatuko dute Kantabriako uretan Atzo Pedreñan, hernaniarrek bosgarren egin zuten bederatzitik. Bandera Pedreñak irabazi zuen; bigarren, Santander; hirugarren, Zierbena eta laugarren, Algorta.

**SANTA BARBARA**  
PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15  
Tel. 943 551 139 - 943 551 979, 20120 HERNANI

**Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoez aldatzen ditugu**

Peugeot 406	TD	1.900.000 pzta
Peugeot 405 GRI	1.9 Aire egokitua	570.000 pzta
Peugeot 206	Diesela	berria
Renault Clio - 5p.	Diesela	775.000 pzta
Citroen AX- 5 ate	Diesela	475.000 pzta
Ford Escort - 5 ate	16 balbula - gorria	550.000 pzta
Renault Express	Diesela	650.000 pzta
Renault Express	Diesela	450.000 pzta
Suzuki "Todo terreno"	1.2	290.000 pzta

eta beste hainbat, 100.000 eta 200.000 pta artean...

**Allianz** (ili)

ASEGURUAK

Agustin Ezponda  
AGENTZIA

Tel.: 943 557 326  
656 735 109

**HEMEN**

Ibilgailuak engrasatu eta eskuz garbitzen ditugu.

Florida 56 - 943 551005 - HERNANI  
(LIDL eta DIA supermerkatuetatik 100 metrorra)

**URGASKA, S.L.**

GAS INSTALAKUNTZA  
MATERIAL SALMENTA

K21

\* ASISTENTZIA TEKNIKOA,  
GAS ETA BEROGINTZAN.  
\* GAS PROPANO, BUTANO  
ETA NATURALA: MANTENUA

Aristizabal 9 Beh  
Tel: 943 33 37 4

**Jatetxea**

*Venta Berri*

Arano - Nafarroa  
(948) 51 40 18

Oporren ondoren bihurtik berriro zabalik.

MADALENA JAIA ZAHARREN EGOITZAN

## Meza, bazkaria eta bingoa Sandiusterrin

■ Atzo giro ederra izan zen arratsaldeko dantzaldian ■ Bihar diapositiba emanaldia.



Dantzaldia izan zen atzo Zaharren Egoitzan Gelatxo taldearekin.

GAUR da, Madalena egunez, Zaharren Egoitzako festa egunik garrantzitsuenak. Festa goiz hasiko da, 8:30etan Txistulariekin Dianarekin. Gero 12:00etan meza nagusia; bukatzean, 13:00etan *Injineru Industrialen* Tunaren emanaldia.

**BAZKARIA ETA BINGOA** 14:00etan, trikitalariek girotuta ko bazkaria izango da. Bazkalostean atsedean pixka bat hartu eta gero, arratsaldeko 18:30etan nahi duenak badu jokorako aukera, Bingo berezia antolatu bait dute.

**ATZOKO EGUNA** Atzo goizean Toka txapelketan Juan Perezek irabazi zuen eta 2garren Teodora Belauntzaran. Arratsaldean berriz giro ederra sortu zen Gelatxo Orkestrarekin. Bihar diapositiba emanaldia izango da 17:30etan. □

## ■ TXANTXANGORRI - PLATER TIRAKETA

### Loinaz txapeldun Erregularitatean

■ Atzoko tiraldia Jabier Olasagastik irabazi zuen 30 plateretik 24 txikituta.



Manu Loinaz txapelduna erdian, eta, bere eskubitara, Jabier Olasagasti, atzo irabazi zuena.

MANU Loinazek irabazi du plater tiraketako Erregularitate Txapelketa. Txapelketa hori modalitate ezberdineko bost tiraldietara jokatzeko da (*foso, minifoso, trap, trap bikoitza eta ehiza ibilbidea*) eta dena Loinazek 91 puntu atera ditu.

Bigarren, Cristobal Barragan gelditu da (88 p); hirugarren Jabier Olasagasti -atzoko irabazlea- (87 p) eta laugarren Antonio Redondo (83 p). Txapeldunak txapela eta 1.000 kartutxo jaso ditu.

**OLASAGASTIK, ATZO** Atzoko tiraldia, Jabier Olasagastik irabazi zuen. 30 plateretik 24 txikitu zituen, Joxe Luis Argote bigarrenak baino bi gehiago. Jabierrek bi bogabante eta bi botila txakolin eraman zituen sari. Erregularitateko txapelduna hirugarren gelditu zen atzoko tiraldian, 21 plater txikituta. Roberto Garziak 19 bota zituen. Denera, 18 ehiztari atera ziren. Sari banaketa ondoren luntxa egin zuten. □

**AMEGAR, C. B.**  
ETXE TRESNAK

SUKALDE ALTZARIAK  
Izpizua 27

ELEKTROGAILUAK -TB -  
BIDEOAK - HI-FI - OPARIAK  
Txirrita kalea 15

Tel 943 551125-Faxa 943 551603  
HERNANI (Gipuzkoa)

ARANOKO JAIK

## Rosa Mari-Jaione, Haritz-Mikel eta Xabier-Gorka bikoteak txapeldun pelotan

■ Umeen eguna gaur ■ Goizean meza eta pelota; arratsaldean Gorritiren animaliak, txolokatea eta magoa



Aranoko I Pelota txapelketako finalistak, beren sariekin.

EGUZKI giro ederrean, pelotariarentzat beroegi zela, jokatu ziren atzo Aranon pelota txapelketako finalak. Lehenengo neskak jokatu zuten palaz, eta Rosa Mari-Jaionek 22-9 irabazio zioten Maitane-Lurdesi. Bigarren partiduan, mutilak jokatu zuten palaz, Haritz-Mikelek irabazi zuten 22-17 Jabi-Joseluren aurka. Azkenik, eskuzko finala Xabier-Gorkak irabazi zuten

22-15 Tutu-Mikelen kontra.

### GOIZUETARRAK TXAPELDUN MUSEAN

Bestalde, ostiralean jokatu zen mus txapelketa. David-Agustín goizuetarrak gelditu ziren txapeldun; bigarren, Jose Ramon-Maria Jesus aranoarrak; hirugarren, Eskudero-Perone eta laugarren, Haritz-Mikel. 25 bikote apuntatu ziren. □



Soziedade bete jende izan zen musean Aranon. Tartean, Goizuetako pelotari ezagunen bat ere bai.

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093  
▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
▶ DYA: 943 464622  
▶ Autobusak: 943 556662  
▶ Anbulatorioa: 943 557750  
▶ Jokalari anonimoak 943 331103

#### ✚ FARMAZIAK

▶ Egunez: Sagastiberri  
Urbieta 7  
☎ 943 552941  
▶ Gauz: Sagastiberri  
Urbieta 7  
☎ 943 552941

**5.000 PTA URTEAN  
KRONIKAREN ALDE  
IZAN ZAITEZ ZU ERE LAGUNTZAILE**

DEITU 943-330899

### IRAGARKI MERKEAK

■ Pisu eguzkitsua salgai Hernanin 19 milioietan. Interesik duenak 655. 72 25 19 telefonora dei ezazue. Agentzietakoek ez deitu.

ADARRAGA  
Konfitegia  
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7  
☎ 943 55 09 10

